



## **"BEATRIZ GALINDO" DOKTORATU ONDOKO DEIALDIA** **(Unibertsitate Ministeritza) 2024**

### **INTERES ADIERAZPENAK AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK, UPV/EHUk PLAZAK ESKATZEARI BEGIRA**

#### **Interes adierazpenek bete beharreko baldintzak:**

Interes adierazpenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Hauek egin dezakete eskaria: UPV/EHUko ikertalde aitortuek (Eusko Jaurlaritzaren edo UPV/EHUko deialdietan halakotzat onartuek), unibertsitate institutuek edo nortasun juridikorik gabeko entitateek.
- Deialdi honetan UPV/EHUko ikertalde aitortu bakoitzak, unibertsitate institutu bakoitzak edo nortasun juridikorik gabeko entitate bakoitzak interes adierazpen bakarra aurkeztu ahal izango du. Interes adierazpen horretan 3 hautagai arte proposatu ahal izango dira.
- UPV/EHUko ikertalde aitortuek, unibertsitate institutuek edo nortasunik gabeko erakundeek ahalmen ekonomikoa izan beharko dute laguntzak iraungo duen lau urteetan zehar kontratuak kofinantzatzeko:
  - Senior modalitatea: Gutxienez 25.000 euro/urteko.
  - Junior modalitatea: Gutxienez 15.000 euro/urteko.
- Diru laguntza jasoz gero plaza atxikiko zaion sail edo institutuko arduradunaren onespena izan beharko du interes adierazpenak.

#### **Plazen ezaugarriak**

Bi modalitate daude deialdian:

- Senior modalitatea:** Hautagaiek egiaztatu beharko dute gutxienez zazpi urteko esperientzia izan dutela atzerrian, irakaskuntzan eta ikerketan, Doktore titulua jaso zutenez geroztik.
- Junior modalitatea:** Hautagaiek egiaztatu beharko dute gehienez zazpi urteko esperientzia izan dutela atzerrian, irakaskuntzan eta ikerketan, Doktore titulua jasotzeaz geroztik.

#### **Interes adierazpenak hautatzeko irizpideak**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) hautagaien barne balorazioa egingo du, eta gehienez bost eskari hautatuko ditu, bere ustez laguntza eskuratzeko aukera gehien daukatenak. Irizpide hauek erabiliko ditu balorazioan:

<b>IRAKASKUNTZA PROIEKTUA (gehienez 2,5 puntu)</b>	
<i>Irakaskuntza programa</i>	<b>puntu 1</b>
<i>Irakaskuntza proiektuaren kalitatea</i>	<b>puntu 1</b>
<i>Irakasle edo ikertzailearen irakaskuntza programaren lotura Nazioarteko Bikaintasun Campusaren helburuekin.</i>	<b>0,5 puntu</b>



<b>IKERKETARAKO ETA JAKINTZAREN TRANSFERENTZIARAKO PROIEKTUA</b> (gehienez: 2,5 puntu)	
<i>Unibertsitateak planifikatutako ikerketa</i>	1,25 puntu
<i>Unibertsitateak planifikatutako jakintzaren transferentzia</i>	1,25 puntu

<b>KONTRATUA AMAITU ONDORENGO INTEGRAZIOA</b> (gehienez 2,5 puntu)	
<i>Prozesuaren kalitatea eta zehaztasuna</i>	1,25 puntu
<i>Prozesuaren plangintza</i>	1,25 puntu

<b>UNIBERTSITATEAREN ZAKO EKARPENA</b> (gehienez 2,5 puntu)	
<i>Ekarpen sozial eta ekonomikoa</i>	1,25 puntu
<i>Unibertsitatearen irakaskuntza eta ikerketa proiektuarentzako ekarpena</i>	1,25 puntu

### **Aurkeztu behar den dokumentazioa:**

Interes adierazpenak aurkezteko erabili beharko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian dagoen eredua (Worden eta PDFn), hautagaien CVA eguneratuarekin batera.

### **Esharia aurkezteko epea eta era:**

Interes adierazpenak Ikerketaren arloko Errektoreordetzara bidali beharko dira ([pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus)), mezuaren gaiari "Beatriz Galindo deialdia" jarrita. Horretarako **epea 2025eko urtarrilaren 29an amaituko da 13:30etan.**

IGBBk ez du ebaluatuko goian esandako bidea ez den besteren bat erabiliz aurkeztutako edo data horren ostean jasotako interes adierazpenik.

### **IGBBren tramitazioa:**

IGBBk interes adierazpenak behin hautatu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak posta elektronikoz jakinaraziko die haien proposatzaileei, eskari osoa lantzen has daitezen. Jakinarazpen hori **2025eko otsailaren 3tik 4 bitartean egingo da.**

Orduetik aurrera, **hautatuak izan diren adierazpenen proposatzaileek 2025eko otsailaren 5eko 13:30ak arteko epea** izango dute eskari osoa [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbidera bidaltzeko.